

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ ODOL EMATEA

Erantzun ona odol bankuak betetzeko

Pasa den ostiralean eman zuten odol astigarrarrek udarako odol bankuak betetzeko eta erantzun ona eduki zuen urteko bigarren deialdiak. Jendea goiz ibili zen eta lehenengo ordutik ilara luzea zegoen anbulategian. ||

■ IGERILEKUAREN IREKIERA

Igerilekuak gaur irekiko ditu ateak

Mugimendu gehiena uztailean espero den arren, hasierako egun hauetan ere ibiltzen da jendea, eguraldiak laguntzen badu. Irailaren 16ra arte egongo da zabalik, egunero, 10:00etatik 20:00etara.

IGERILEKUAK gaur zabalduko ditu ateak eta irailaren 16ra arte egongo da zabalik, egunero, 10:00etatik 20:00etara. Beraz, hiru hilabete daude igerilekuaz gozatzeko. Hori bai, eguraldi iragarpenak gaurko ez dira hoberenak, baina hala ere atak irekiko dira.

Mugimendu gehiena uztailean espero den arren, hasierako egun hauetan ere ibiltzen da jendea, eguraldiak laguntzen badu, asteburuetan batez ere.

Uztailean mugimendu asko egotean da. Ikastola bukatuta gazte asko joaten da eta udalekuetako umeak ere ibiltzen dira igerilekuan. Abuztua lasaiagoa izaten da, jendeak kanpora joateko ohitura duelako. ||



Waterpolo txapelketa ere jokatu izan da Astigarragako igerilekuan.

■ KONTZERTUA

Emanaldia etzi, Aiztondo abesbatzak

Aiztondo abesbatzak Udaberri kontzertua eskainiko du etzi, 20:00etan, Astigarragako elizan. Donostiako Gaztelupeko Otxotoek eta Astigarragako Aiztondo abesbatzak hartuko dute parte. ||

■ SASKIBALOA

Ate irekiak, 2005-2010ekoentzat

Datorren urterako saskibaloia probatu nahi dutenei deia egin die Mundarrok. Ate irekierako hitzordua jarri dute etzi, 18:00etatik aurrera, 2005 eta 2010 urte bitartean jaio direnentzat. Probatzeko aukera izango da kiroldegian. Bertaratzen direnei Gipuzkoa Basketeko kamiseta emango diete, opari. ||

■ GAZTELEKUA

Izenematea, etzira arte Gaztelekuan

Udarako programa prest dauka Astigarragako Gaztelekuak eta ekintza desberdinak egingo dira; bakoitzak bere ordutegia eta prezioa dauka, eta aurretik eman behar da izena. Horiei buruzko informazioa jaso eta izena emateko azkeneko eguna etzi izango da, Gaztelekuan bertan. ||

■ URUMEA BIZI

Ibilaldi eta tailerra ondoren erakusketak jarraitzen du Kultur Etxean, hilaren 22ra arte

Azken egunean Gaugiroan saguzarrekin ekitaldia antolatu da 20:00etan. Kiko Alvarez adituak zertzelada batzuk eman eta bokata jan eta gero, herriko saguzarrak ikustera joango dira.

URUMEA Bizi erakusketa dago ikusgai kultur etxean ekainaren 22ra arte, Urumea ibaiaren inguruko Ramon Arambarriren argazkiekin osatutakoa. Goizeko 09:00etatik 20:30etara ikusi daiteke, egunero; eta gainera, ekintzak ere burutzen ari dira eta burutu dira horren bueltan.

Azken ekitaldia egun horretan bertan antolatu da. Ekainaren 22an gaugiroan saguzarrekin. Iluntzeko 20:00etan, Kultur Etxean. Kiko Alvarez adituak ugaztun hegalaria misterioitsu hauen zertzelada ba-

tzuk emango ditu lehenik, eta bokata jan eta gero, denok joango dira elkarrekin Astigarragan bizi diren saguzarrak ikustera.

Ibilaldi, tailerra eta hitzaldia egin dira

Atzo Piriniotako muturluzea: ekologia eta kontserbazioa hitzaldia eskaini zen eta asteburuan ibilaldia egon zen Santiagomenditik Landarbaso-Epelera, baita tailerra familiarentzat lehenengo biztanleen bizitzari buruz. ||



Nola bizi ziren ikasi eta sua pizten saiatu ziren igandean.

Argazkia: HARITZALDE

■ UDALA

Bilera tekniko, gaur areto nagusian

Astigarragako aurrekontu parte-hartzailein bilera tekniko gaur izango da, 19:00etatik aurrera, udaletxeko areto nagusian. Ideiak jaso ondoren, bigarren faseari ekingo diote horrela. Bertan azaltzen diren aukeren artean bozkatu ahal izango dute herritarrek, Udala aurrekontuko 100.000 euro zertan gastatu erabakitzeko. ||



Inguru ederrean ibili ziren Epele bailaran larunbatean.

Argazkia: HARITZALDE

K ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 88
ikatzaberna@gmail.com

GNOMOS

PAPER DENDA

Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05

sulabe

Valella
okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10



☎ **TAXIAK:** 622 222 343 | **UDALTAINGOA:** 943 335230 - 699 487 587 | **DYA:** 943 46 46 22 (Hernani) | **AUTOBUSAK:** Areizaga: 943 452708 | **ANBULATORIOA:** 943 33 56 44
 ✚ / **Egunez:** **ASTEAZKENA Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** | **OSTEGUNA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **OSTIRALA Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** | **LARUNBATA Aizpuru** Latsunbeberri, 11 (Hernani) **943 336077** | **IGANDEA Aizpuru** Latsunbeberri, 11 (Hernani) **943 336077** | **ASTELEHENA A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** | **ASTEARTEA Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauzez: Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA
GAUR Iparraldeko haizeak jarraituko du eta euria egingo du. Arratsaldean atertzen joango da eta haizeak zakar joko du. Tenperatura ez da aldatetarik nabaritu-ko. **Min.14° / Max.18°**
BIHAR Goiz partean euria egingo du, ia-ia eguerdira arte. Arratsaldean, lainoak eta ostarteak tartekatuko dira, ostarte haundiekin. Eta haizea indar gutxiarekin ibiliko da. **Min.14° / Max.20°** (euskalmet)

EH BILDU PRENTSA OHARRA

EH Bilduk positiboki baloratzen du EAJk «orain harrotasunez» aldiriko tren geltokia babestea

Alderdiaren esanetan «oraingo alkateak aurreko legealdian tren geltokiaren inguruan izan zuen jarrera desleiala gogorazi nahi dugu».

«DUELA gutxi arte, oraingo alkateak, aldiriko tren geltokia gutxiesten zuen. Aurreko legealdian, EH Bilduk aldiriko tren geltokia Astigarragara ekartzeko lanean jarri zen. Orduan, Eusko Jaurlaritzak, geltokia teknikoki eta ekonomikoki bideragarria zela onartu zion EH Bilduri. Geroztik proiektua urratsak ematen joan da» eta EH Bildurentzat aldiriko tren geltokia babestea berri pozgarria da Astigarragarentzat.

Hala ere, bide horretan «egungo alkateak izan duen jokabide desleiala» gogorarazi du EH Bilduk. «Alkateak, aurreko legealdiko EAJren Udal Bozemaileak, aldiriko tren geltokia «ameskeria hutsa» zela babestu zuen eta Eusko Trenbide Sareko (ETS) zuzendariarekin harremanetan jarri zen eta ez bereziki aldiriko tren geltokia sustatu bultzatzeko». Beraz, EH Bilduk argi du «egungo Alka-

teak orduan ez zuela herriaren interesen alde egin».

«Inoiz ez da berandu» eta EH Bilduk «ongi etorria ematen dio EAJri, aldiriko tren geltokiaren defendatzaileen ekipora. Trenaren babesleak gero eta gehiago izan orduan eta errazago eta azkarrago izango da aldiriko tren geltokia erreallitate».

«EAJk pentsioak %0,25eko igoerara mugatu zituen 2017ko PPrein aurrekontu negoziatuak goraipatu ditu» Bilduren ustez. «iraingarria da aldiriko tren geltokia babesteko, EAJk Madrilen PPrekin 2017ko aurrekontuak onartzeko egindako adostasuna goraipatu izana. Adostasun horretan, EAJk, PP eta Ciudadanosekin batera, pentsioen igoera %0,25-era mugatu zituen» eta EH Bildurentzat «lotsagarria da, adostasun hori euskal gizar-

arentzat eta astigarrarentzat onuragarri bezala saldu nahi izatea».

«Eusko Jaurlaritzak lantzen ari den proiektuak puntu beltz berri bat sorrarazi dezake»

EAJk aipatutako hitzarmen ezagunari baino EH Bilduk martxoaren 8an Eusko Jaurlaritzako buletin ofizialean argitaratutakoari garrantzia haundiago ematen dio.

«Bertan, ETSk aldiriko tren geltokiaren proiektua idazteko lehiaketa argitaratu zuen eta geltokia eta herria lotuko dituen pasabidea zuzenean Urumea Berrira edo Bidebitarteko poligonoaren kale nagusiarekin lotu beharrean, pabiloi baten atzealde itsu batean kokatuko da».

EH Bilduk uste du hori ekidin behar den puntu beltz bat dela eta Udalak hori ekidin dezan eskatuko du. ||

LIBURU AURKEZPENA

Luzia Alberrok, 'Bertsolarien ahoz'

Luzia Alberrok idatzitako *Bertsolarien ahoz* liburuaren aurkezpena egingo da bihar, ekainaren 14an, 19:30etan Kultur Etxean. Bertan egongo dira, besteak beste, Luzia Alberro bera eta Maialen Lujanbio eta Agin Laburu bertsolariak ere. ||

TXOTX DENBORALDIA

Balorazioa egingo da astelehenean

Astigarragako Udalak jakitera eman nahi du datorren astelehenean, ekainaren 18an, bilera egingo dela, 19:00etan, udal pleno aretoan aurtengo txotx denboraldiaren balorazioa egiteko. Sortzen diren kez- kak, eta baita ere proposamenak, ezagutzea ditu helburu udal gobernuak eta datorren sagardo boladan bizikidetzaren hobetzea. Asistentzia konfirmatzea eskertzen da alkatetzara deituz (943 33 52 40) edo idatziz alkatetza@astigarraga.eus helbide elektronikoan. ||

IPUIN KONTAKETA

Lur Kortarekin, gaur liburutegian

Lur Kortarekin gaur, 18:00etan, liburutegian. *Ernesto irriz blai* ipuinarekin gozatzeko aukera izango dute 3 eta 9 urte bitartekoak. ||

MUSIKA EGUNA

Ikasturtea bukatzeko, Musika Eguna

Urtero egiten du Musika Eguna Norberto Almandoz Musika Eskolak ikasturtea bukatzeko, eta aurten ez da gutxiago izango. Etxe eta larunbatean izango da, hain zuzen. Ostiralean, trikitilarien kalejira izango da, eta ondoren, 17:30etan, kontzertuak eskainiko dituzte Joseba Barandiaran plazan. Larunbatean, aldiz, Andre Mari elizan joko dute txikiak, goizeko 10:00etan; eta ondoren, beste hainbat kontzertu izango dira Joseba Barandiaran plazan. ||

EH BILDU

EH Bilduk batzar irekia egingo du gaur

Hezkuntza, Urumea Berrirako egitasmoak eta 2019 jaien nondik norakoak jorratuko dira.

GAUR 3 urte beteko dira Udak Korporazio berria osatu zela eta data hau aintzat hartuta, EH Bilduk batzar ireki bat antolatuko du. Batzarra Ikatza tabernaren gainean izango da 19:00etatik 20:30era.

Batzararen urte hauetako gai garrantzitsuenak izango dira hizpide: hezkuntza (eskola eta jangela beraren haundipena, DBHren etorkizuna, haurren eskola...) eta Urumea Berriko egitasmoan dauden berriak konpartituko dira.

Bestetik, azken hilabeteetan jaien inguruan egon den eztabaida kontuan izanda, EH Bilduren hausnarketa zein izan den adieraziko da. Batzarrean proposatzen diren beste gai asko ere lantzeko aukera ere izango da.

2019ko hauteskundeetarako lanketari ere ekingo zaio batzarrean

Azkenik, EAJren udal gobernuak alkatetzara heldu zela 3 urte pasa diren bezala, urtebete falta da udal eta foru hauteskundeak berriz izateko. Horregatik, EH Bilduk 2019an aurreikusten den erronkari aurre egiteko lanean hasteko garaia dela uste du eta «batzarrean 2019ko hauteskundeetarako dagoen planteamendua aurkeztuko da. 2019ko udal hauteskundeak oso garrantzitsuak izango dira herriaren etorkizunerako eta horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da EH Bilduren komunitate osoa prest egotea».

EH Bilduk uda aurretiko azken batzar honetan herritar guztiei parte-hartzera dei egiten die. ||

GURE ESKU DAGO



Giro ederrean ongi pasa zuten astigartarrek igandeko Giza katean Aginagan.

Astigartarrak ez ziren falta izan Giza kate arrakastatsuan

300 astigartarrek gora egon ziren igandean, Aginagan, Gure Esku Dagok antolatutako Giza katean erabakitze eskubidea aldarrikatzen. Foru Plazan bildu ziren eta argazkia atera eta gero Aginagara hurbildu ziren festa giroan. Bertan, kate bat baino gehiago osatu zuten, hasteko trikitixaren soinu eta doinuen inguruan eginiko dantzek osatutakoa. ||